

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Zenbait diru-laguntzen berariazko oinarriak aldatzea**

2020ko irailaren 25ean izandako batzarrean Udaleko Osoko Bilkurak zenbait diru-laguntzen berariazko oinarriak aldatzea onartu zen, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean bere iragarkia argitaratzeko jartzen da.

Bermeon, 2020ko urriaren 8an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense

**ZENBAIT DIRU-LAGUNTZEN BERARIAZKO OINARRIAK ALDATZEA****Lehenengoa**

Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeko dirulaguntzen Berariazko Oinarriak aldaketa onartzea eta ondorengo atalak modu honetan idaztea:

Helburuak

- Herri osorako jarduera arruntetik haratago antolatzen diran jolas izaerako kirol jarduera berezien eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dabenak.
- Herriaren izenaren zabalkundean eragina daukien kirol-ekimenak sustatzea.

Epeak

- Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.
- Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean luzatuko da.

Justifikazioak: Eskaria egiten danetik hiruhileko epean izango da.

Balorazio irizpideak

1. Kirol ekintzaren iraupena.
 - Egun baten egingo dana (goizez edo arratsalde, ordu batzuk): 2 puntu.
 - 2 egunetan (adib: zapatu eta domeka) egingo dana edota 2 saio egun berean (adib: zapatu goiz eta arratsalde): 5 puntu.
 - 2 egun baino gehiagoko iraupena izango dauan ekintza: 10 puntu.
2. Ikusleen partetik dauan arrakasta.
 - a) Kirol ekintza honek aurreko edizioan izan dauan arrakasta jendearen aldetik, hau da, herriko edota kanpoko jendea ekintza ikustera hurbildu dan.
 - Oso jende gutxi joaten da ikusten (1-100 bitartean): 0 puntu
 - Jende gutxi joaten da ikusten (100-200 lagun bitartean): 5 puntu.
 - Jende kopuru dezente joaten da (201-300 bitartean): 10 puntu.
 - Sekulako arrakasta dauka, jende asko hurbiltzen da (301 lagunetik gora): 25 puntu.
 3. Parte-hartzeari jagokonez, honako hau baloratuko dogu:
 - b) Partaide kopurua.
 - Kirolari gutxi parte hartzen dabe (10-100 bitartean): 10 puntu.
 - Kirolari dezentek parte hartzen dabe (101-200 bitartean): 15 puntu.
 - Kirolari askok parte hartzen dabe (201etik gora): 25 puntu.
 4. Aurkezten daben aurrekontua. Antolatzailleek kirol ekintza aurrera erodateko ekonomikoki egin daben lanaren balorazioa. Enpresa edota komertzioetara jo daben diru laguntza bila...
 - Finantziario maila. Udala edota bere erakunde autonomoiez aparte beste diru sarrerarik lortzeaz arduratu dira (sponsorrak, enpresa pribatuak, ...).
 - Bat ere ez: 0 puntu.
 - Diru sarreren %1etik %50ra euren kontura: 2 puntu.
 - %50tik gora: 5 puntu.

* Inskripzioak kanpo geratzen dira, ez ditugu kontuan hartzen.

Oharrak: Ez dira hartuko kontuan esku dirutan emondako sariak eta diru sarreren barruan, inskripzioen dirua.



5. Kirol ekintzak komunikabideetan zuzeneko eragina daukan Bermeoren izenaren zabalkundea eginez.

- Ez dauka apenas eraginik: 0 puntu.
- Komunikabide lokaletan dauka eragina: 10 puntu.
- EAE mailako komunikabideetan dauka eragina: 25 puntu.
- Nazio edota nazioarteko komunikabideetan dauka eragina: 35 puntu.

Prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Diru-laguntzaren justifikazioa

Diru-laguntzearen onuradunak proiektuaren justifikazioa deialdian agertzen diran eranskinen arabera egin beharko dau, egoitza elektronikoa edo Berhaz bulegoan. Horretarako kirol jarduera egiten danetik hiru hilabete epean izango da.

Jarraipen eta ebaluaketarako adierazleak

Komunikabideetan ekintzaren eta herriaren presentzia handia bermatzen dabenean ekintzak antolatu izana.

Bigarrena

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko diru laguntzen deialdiaren berriazko oinarriak aldatzea onartzea, eta atal bi honek honela idaztea:

Epeak

Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, urte bakoitzeko deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskatera-orka beteta.
- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Prestakuntza euskaraz jaso eta gainditutako azterketa teorikoa euskaraz egin duela ziurtatzen duen agiria.

Hirugarrena

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako diru laguntzen deialdiaren berriazko oinarriak aldatzea onartzea, eta atal bi honek honela idaztea:

Epeak

Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, urte bakoitzeko deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskatera-orka beteta
- Nortasun Agiriaren fotokopia
- Langabeek, lan-bizitzaren ziurtagiria.
- Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria.
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea. Barnetegien kasuan, bakarrik ikastorduen matrikulari dagokion kostua.
- «Ikaslearen ibilbide osoa» agiria. (www.habe.euskadi.eus).

Laugarrena

Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri espezifikoa aldatzea onartzea, eta atal honek honela idaztea:

*Epeak*

Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean luzatuko da.

Balorazio irizpide zehatzak

1. Federatutako taldeko:
 - Lurraldeko lehiaketetan daudenengatik: 10.
 - Autonomia erkidegoko lehiaketetan daudenengatik: 20.
 - Estatuko lehiaketetan daudenengatik: 30.
2. Bermeon helbidea duen federatutako kirolari bakoitzeko:
 - Banakako kirolean: 02.
 - Taldeko kirolean: 01.Euskadiko selekzioan dagoen kirolari bakoitzeko: 01.
Euskadikoaren gainetik dagoen selekzioen baten dagoen kirolari bakoitzeko: 02.
3. Entrenatzaileko:
 - Erdi mailako hasiera zikloko teknikaria edo I. mailakoa: 03.
 - Erdi mailako bukaera zikloko teknikaria edo II. mailakoa: 06.
 - Goi mailako teknikaria edo III. mailakoa: 10.
4. Herritar guztien parte hartze aktiborako eta Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren edota Udalaren diru-laguntza gabeko kirol jarduera antolatze bakoitzagatik: 2.
5. Ikastetxeekin eskola-kirola bultzatzeko lankidetzako jarduera bakoitzagatik: 2.
6. Kirol jarduerak sustatzeko Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuarekin lankidetzan arituta antolatutako kirol jarduera bakoitzagatik: 2.
7. Areneko udal kiroldegia derrigor erabili behar duten klub bakoitzeko federatuen %25 puntuatuko dira.
 - Talde berriek lehen urtean 300 euroko diru-laguntza zuzena jasoko dute, euren jarduerari aurre egiteko.Puntuak gehienez 60 euroko balioa izango du.

*Eskatzaileak**Espezifikazioak*

Jarduera ekonomikoa garatzen edota garatzen ez duten pertsona juridikoak. Helbide soziala eta bere ohiko kirol jarduera Bermeon garatu behar dute. Euren jardueran %30etik gorako autofinantzaketa izan beharko dute.

Baztertzeak

Diru-laguntza eskatzen duten kirol taldeetako jokalariei batek ere ezin izango du dirurik kobratu kirola egitearren.

Prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.

Aurkeztu beharreko dokumentuak, (eranskinak euskaraz):

- a) Udal diru-laguntza eskatzeko orri normalizatua behar bezala beteta (1.2 eranskina).
- b) IFKren kopia eta kirol taldearen estatutuak aurreko urteetan ez badira aurkeztu.
- c) Ogasun Sailaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria esanez egunean daudela betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzaren edo KPri baimena ematea ziurtatzeko.



- d) Aurreko urtean eginiko jarduera txostena edo memoria (2.3 eranskina): Aurreko urtean eginiko jardueren txostena, bertan deskribatu beharko dira egindako jarduerak, zabalkunderako hartutako neurriak, jarritako helburuak eta eskuratutako emaitzak eta helburuen lorpen maila. Txostenaren gehienezko luzera 4 orrikoa izango da.
- Talde-kiroletako taldeek zenbat talde eta zein mailatan lehiatu diren espezifikatu beharko dute (3.1 eranskina). Atal honetan zehaztu beharko da euskararen erabilera kirol jardueretan (entrenamenduak, publizitatea...).
- e) Kontu garbiketaren aitorpena (2.2 eranskina) eta Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda (2.1 eranskina). Puntu honekin batera fakturak erantsiko dira, dagokion ordainketa ordainagiriarekin.
- f) Taldekirolari federatuen zerrenda, 2019-2020 denboraldian zehar 14 urte betetzen dituztenak barne. Zerrenda hau federazioak sinatutako orrian agertu beharko da eta honako datu hauek egon beharko dira: jaiotze data, helbidea duen herria eta parte hartu duen lehiaketak edo kirolari bakoitzaren fitxaren kopia eta parte hartu duen lehiaketako aktaren kopia bat, baina beti eskatzen diren datuak islatuz (jaiotze data eta bizi den herria).
- g) 2019-2020 denboraldian talde federatuekin aktiboki dauden entrenatzaileen zerrenda eta beraien titulazioa. Titulazio ofizial originala ekarri beharko da Kirol Patronatuak konpultsatzeko.
- h) 2020-2021 denboraldirako taldeak dituen egitasmoak. Taldekiroleko taldeak denboraldi horretan izango dituen talde kopurua eta kategoria islatu beharko dute (gehienez 2 orri).
- i) 2020-2021 denboraldirako taldeak dituen aurrekontu eta gastuen aurreikuspena (1.1 eranskina).
- j) 2019-2020 denboraldian egindako jarduerak edota herri ekimenak Patronatuaren intereseko arloak bultzatzeko: hizkuntza, generoa, ingurumena, ekimen solidarioak, eskola-kirola bultzatzeko lankidetzak, herrian kirola bultzatzeko eginko ekintzak bere kabuz edota Udalaren Kirol Patronatuaren laguntzarekin (3.2 eranskina).
- Puntu honetan erabilitako publizitatearen kopiak erantsi behar dira: programak, kartelak, argazkiak, kamisetak, etab. Euskarri hauetan guztietan Udalaren Kirol Patronatuaren logoa agertu beharko da.

Akatsak zuzentzeko epea

Diru-laguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.

Diru-laguntzak emateko prozedura

- Diru-laguntzak prorrata sistemaren bidez emango dira, puntuazioaren arabera, aurrekontuko dotazio osoa banatuta.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, aurrekontuaren %70a artekoa izango da.

Aurkeztutako proposamenek gutxienez, 10 puntu lortu beharko dituzte diru-laguntzaren bat jasotzeko.

Puntuak gehienez 60 euroko balioa izango du.

Dirulaguntza hau bateragarria da beste dirulaguntza batzuekin.

Diru-laguntzak ordaintzea

Kirol Patronatuak ordainketa egiteko, aurreko denboraldi edota urteko balantzea aurkeztuko beharko da dagokion justifikazioarekin. Diru-laguntza ondo justifikatzeko, balantzean (kitapenean) agertzen den aurrekontuaren %100a fakturekin justifikatu behar da.



Desadostasunik balego, Kirol Patronatuko Diru-laguntza balorazio batzordeak aztertuko luke.

Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak

1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormetan ere, ezin izango da kartelik jarri.
2. Jasotzaileak bere ohiko kirol jarduera zabaltzeko egiten duen publizitatean (iragarkiak, ekipajeak, kartelak, webgunea,...) Bermeoko Kirol Patronatuaren logoa agertu beharko da.
3. Ezingo dira zorrik izan Bermeoko Udalarekin zein Kirol Patronatuarekin.

Diru-laguntzaren justifikazioa eskariarekin batera aurkeztu behar da

1. Diru-laguntzaren onuradunak 2019. urteko diru-laguntzaren justifikazioa egin beharko du udal eranskinaren arabera, egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kirol Patronatuan, Bermeoko Udaleko diru-laguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen den moduan, eskaria aurkezteko dagoen epe berean.
2. Ebaluazio-memoria eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, parte-hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa jasota.
3. Erabilitako publizitatea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.

Akatsak zuzentzeko epea

Justifikazioan ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun edukiko ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita.

Jarraipen eta ebaluaketarako adierazleak

Diru-laguntza hau jasotzen dutenetatik gutxienez %70 talde mistoak izatea edo emakumeenak.

Diru-laguntza hau jasotzen dutenek kirolarekin lotutako herri ekimenetan urtero parte hartzeren bat izatea (hizkuntzarekin, generoarekin, ekimen solidarioekin, ingurumenarekin, ... zerikusia dutenak).